

# ASTUA TA ZAKURRA

(IPUIYA)

Astoa errotara  
zijoan nekian,  
piśu asko zeraman  
bere bizkarrian;  
ta echeko zakurra  
ark aldamenian  
zeraman laguntzeko  
berari birian.

Astoak esan ziyon  
lagun leyalari:  
—Aizak, ni arkiten nak  
biziго egarri,  
ea putsu zulorik  
ote dan ageri,  
egarriya kentzeko  
eranaz ugari.

Zakur leyalak ziyon  
esan modu onetan:  
—Putsu zulo zikiñña  
baziok or bertan,  
bañan ez adiyela  
asi zikiñetan,  
gaitz enbat sortutzeko  
gero estietan.

Pazientziya arzak  
guazemak aurrera,  
segi zagun suprituz  
errota aldera;  
ta bidean iturri  
onik bada era,  
orduan an izango  
diagu aukera.

Bañan zetoso charrak  
entzun gabe oni  
joan ta eragiñ ziyon  
zuloko urari,  
an etziyon barkatu  
zikiñ ta loyari,  
jarri zan arterañon  
tripaz guri guri.

Gero zijoazela  
birian ostera,  
iturri garbi on bat  
zitzayoten era;  
zakurra esan ziyon:  
—Ara or aukera,  
orain deskantsu onez  
guazen eratera.

Bañan astozakarra  
negarrez asita,  
tripako miñarekin  
jarri zan etzinta,  
estiaik eta karga  
mugitu eziñta  
jberre buruz batetan  
osoro etzita!

.....  
.....

¡Zenbat gure artian  
dira orlakuak,  
zetozo nabarmenak  
asto modukuak;  
chartzat artu lagunak  
on esantakuak  
eta gero gelditu  
mintsu damutuak!

JOSÉ ARTOLA